

Kostuen egitura

Kostuak enpresa edo proiektu batean sortzen diren gastuak dira, helburu ekonomiko bat lortzeko beharrezkoak diren baliabideen erabilerari dagozkionak. Hau da, kostuek islatzen dute zer errekurtso ekonomiko behar diren negozio edo jarduera bat aurrera eramateko. Kostuen egitura proiektu baten oinarri ekonomikoa ulertzeko ezinbesteko tresna da, eta honek barne hartzen ditu funtsean bi kategoria nagusi:

1. **Hasierako kostuak:** Jarduera bat abian jartzeko egin beharreko gastuak. Hauek dira proiektua hasteko beharrezko baliabide nagusiak.
2. **Eragiketa-kostuak:** Proiektuak martxan jarraitzen duen bitartean sortzen diren gastu errepikakorrak, hala nola alokairuak, langileen soldatak, materiala, eta energia.

HASIERAKO INBERTSIOA:

Bakoitzak 5000€ jarritz, 20.000€kin hasiko ginateke. Izan daiteke diru honekin nahikoa ez izatea, bestelako gastu batzuk ere kontutan hartu behar direlako, haien artean:

Lokala alokatzea : Gasteizen lokalen alokairua 500-1.500 €/hileko artean egon daiteke, kokapenaren arabera. Baina, gure lokala 1200€-tan zehaztuta dago.

Ekipamendua: Hauek lokalean izango ditugun baliabide fisikoak izango dira.

- Yoga esterak, blokeak, kuxinak: 3.000 €.
- Ereku komunetarako altzariak (aulkiak, harrera-mahaia...): Enpresa batekin daukagunez kontaktua (Ofita enpresarekin), merkeagoa aterako zaigu. Gutxi gora behera, 1500€ eta 2000€.
- Janari eta edarien makinak: 4.000€

Lizentziak eta baimenak: 3.000 €.

Hasierako marketina: 1.000 € (sare sozialak, webgunea, eskuorriak).

Gastuak guztira: 14.200€

Subentzioak jasoko ditugunez, kopuru hori proportzionalki murriztuko da, subentzioak Gasteizko Udalak, Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak emango dizkigute eta guztira 10.000 - 20.000€ bitartean izango lirateke. Erakunde hauen ekarpen ekonomiko edo laguntzarekin, bankuari eskatu beharko diogun prestamoa txikiagoa izango da, konkretuki 10.000€-koa.

KOSTU FINKOAK:

Kostu finkoak enpresak edo proiektuak izan ditzakeen gastu errepikakorrek dira, jardueraren ekoizpen-maila edo bolumena edozein dela ere. Hau da, gastu horiek aldizkakoak dira eta ez dute aldaketa nabarmenik jasaten jarduera-mailaren aldaketekin. Kostu hauek proiektuaren ustiapenaren oinarritzko egitura ekonomikoa osatzen dute eta honako hauek barne hartzen dituzte: alokairua, aseguruak, interneta, gastu finantzarioak (prestamo bat eskatzerakoan), internet eta telefono-gastuak, langileen soldata.

KOSTU ALDAKORRAK:

Kostu aldakorrak jarduera edo ekoizpen-mailaren arabera aldatu egiten diren gastuak dira. Hau da, negozioaren jarduera bolumena handitzen edo txikitzen den heinean, gastu hauek proportzionalki aldatzen dira. Kostu aldakorrak negozioaren eguneroko funtzionamenduan ezinbestekoak dira eta jarduera-maila osoan eragina dute.

Honako hauek dira kostu aldakorrak: argiaren kostua, gasaren kostua, vending makina (janaria eta edariak jartzen baditugu), langile osagarriak (psikologoak), ingurunea gozatzeko produktuak (intzentsua, kandelak..). Hilabete batean ariketa batzuetan eskaera gehiago badago eta profesional gehiago beharrezkoak badira kostua aldatzen joango da.